

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:


1. DESBERDINTASUN SOZIALA EUROGUNEAN
2. EUSKAL HERRIKO LAN-KOSTUAK, EUROGUNEKOAK BAINO APALAGOAK
3. BESTE BEHIN ERE, GASTU PUBLIKOAN EUROPAKO AZKENAK
4. OSASUNA: MURRIZKETAK BATZUENTZAT ETA OPARIAK BESTEENTZAT
5. ITXARON ZERRENDEN ETA BATEZBESTEKO TXARONALDIAREN LUZATZEA EAEko HOSPITALETAN
6. IA BEHAR DEN ETXEBIZITZA KOPURUA HAINA ETXEBIZITZA HUTS
7. PROPOSAMENA: PORTUGALGO MOBILIZAZIOA

1. DESBERDINTASUN SOZIALA EUROGUNEAN

Eurostatek berriki desberdintasun sozialari buruzko estatistikak argitaratu du. Argitalpen datan ez dira Europar Batasuneko herrialde guztien datuak ezagutzen, Giniren koefizientea kalkulatzeko 15 herrialdek soilik aurkeztu baitituzte beharrezko datuak.

Giniren koefizienteak herrialde bateko sarreren desberdintasuna neurtzen du. Koefiziente hau, 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0-k guztiek sarrera berdinak ditzuztela adierazten duen eta 1ak sarrera guztiak bakarrak dituela eta gainontzekoek batere ez. Hurrengo grafikoan Estatu espainiarrean eta Europar Batasunean Giniren koefizientearen bilakera zein izan den ikus daiteke 2000 eta 2011 urteen artean:

DESBERDINTASUNAREN BILAKAERA 2000-2011



Grafikoan ikus daiteke Estatu espainiarrean azken urteotan desberdintasun sozialak goraka izugarria izan duela, krisia hasi arterarte 0,31kako zelarik eta 2011an 0,34ra igo delarik. Bestalde, Europar Batasunean desberdintasun soziala konstante mantentzen da 0,30 inguruan.

Giniren koefizientea kalkulatzeko datuak dituzten 15 herrialdeen artean, bakarrak gaintzen du Estatu espainiarra, Letoniak hain zuzen. 2008 urterarte Estatu espainiarrean desberdintasuna konstante mantendu zen baina urte horretatik aurrera, krisiaren hasierarekin batera, desberdintasun horren aldeak goraka egiten du etengabe era bizkorrean. Estatu espainiarra da Europar Batasun osoan horren gorakada nabarmena izan duen herrialde bakarra. Gainontzeko herrialdeak nahiko konstante mantentzen dute aldea edo desberdintasuna gutzitzen dute. Azken honen adibide dira Alemania (0,29), Islandia (0,236) edo Norvegia (0,229).

2. EUSKAL HERRIKO LAN-KOSTUAK, EUROGUNEKOAK BAINO APALAGOAK

Eurostat Europar Batasuneko estatistika erakundeak aldian-aldian lan-kostuei buruzko datuak argitaratzen ditu. Hain zuzen, EBko estatu etako orduko lan-kostuaren berri eman ohi du, eurotan.

Europar Batasunean lan egindako orduko kostuetan izugarriko desberdintasunak daude. Lana garestien Norvegia dago (44,2 euro), eta ondoren Belgikan (39,3 euro), Suedian (39,1 euro), Danimarkan (38,6 euro) eta Frantzia (34,2 euro). Beste muturrean ditugu Bulgaria (orduko 3,5 euro), Lituania (5,5 euro) eta Letonia (5,9 euro). Euroguneko batez besteko orduko lan-kostua 27,6 euro dira, eta Ebko 27 estatu etako balioa orduko 23,1 eurotan dago.

INEren bidez lortutako datuen arabera, Hego Euskal Herriko lan-kostuak, aldiz, eurogunekoan azpitik daude, eta hainbat estatu etakoa baino askoz beherago (esaterako, Alemania, Herbehereak, Frantzia, etab.) Hain zuzen, 2011n orduko lan-kostua EAEn 24,7 eurotan zegoen, eta Nafarroan, 22,9 eurotan, hots, orduko 2,9 eta 4,7

euro gutxiago, hurrenez-hurren.

Orduko lan-kostuaren bilakaerari dagokionez, Eurostatek eta INEk emandako datuek adierazten dute azken hiru urteetan EAEn 1,8 euro gehitu dela, eta 1,6 Nafarroan; beraz, euroguneko antzeko igoera izan dute (1,8euro).

Ondorioak

- Hego Euskal Herriko lan-kostua euroguneko batezbesteko mailatik behera dago, eta Alemania edo Frantziaren moduko estatuetakoa baino askoz txikiagoa da.
- Lan-kostuak bertan ez dira batez besteko maila europarra baino gehiago hazi.
- Patronalak behin eta berriz datu faltsuak ematen ditu, inongo iturri ofizialetan erkatu gabeak, soldatei egin nahi dien eraso zuritzeko.
- Euskal enpresak lehiakorrago izan daitezen lan-kostuak murriztu behar direla diotenen aurrez galdutako joko batean sartzen dira. Nola lehiatu Bulgariarekin, orduko 3,5 euroko kostua duela? Nork nahi du langileak halako esplotazio eta miseria egoeran egotea?
- ELAk ugazabei ez die babesik emango lan-baldintzen aurka daramaten eraso horretarako. Aitzitik, soldaten erosteko ahalmena hobetu beharra dago aberastasuna modu justuagoan bana dadin. Honek ez dio lehiakortasunari kalterik egiten; aldiz, enpresen etekinenzako tarte gutxitu egiten da.
- Soldatak defenditzea enpleguaren alde egitea da. Edonork daki biztanleria pobretuz eta erosteko ahalmena gutxituz langabeziara bidaltzen dela milaka eta milaka langile.

[Irakurri ELAk aurkeztutako dokumentua](#)

3. BESTE BEHIN ERE, GASTU PUBLIKOAN EUROPAKO AZKENAK

Denbora daramagu osasun, hezkuntza, edo lan, familia edo norbere bizitzaren arteko kontziliazio arloan, besteak beste, Europako Batasunarekiko Hego Euskal Herrian ditugun gabeziak salatzen. Batasunaren oso azpitik dagoen gastu publikoan ageri da gabetasun hauen osotasuna .

Zehazki, **EAEn gastu publikora zuzentzen den aberastasunaren portzentajea azterturiko estatu guztien atzetik dago**. Izan ere, PBGd-aren %41a baino ez da zuzentzen gastu publikora EAEn, portzentaje hau %49,4koa delarik 27-EBn. Tarte handiagoa Danimarka (non gastu publikoa BPGd-aren %57,9ekoa den), frantses Estatua (%55,9), edo Finlandia (%54) bezalako puntako estatuekin alderatzen badugu. Baina are gehiago, **EAeko gastua** espainiar Estatuko %43,6aren azpitik dago!

Zifra hauek eurotara itzultzen baditugu, 27-EBn egiten den esfortsura berdintzeko bakarrik, EAEn urtero gastatzen direnak baino 5.620 milioi euro gehiago gastatu beharko lirakekeela geratzen da ageria, eta 1.740 milioi euro gehiago gastatu beharko zirela espainiar Estatuko gastu publikoaren mailara iristeko.

Alderaketak Europako Batasunarekin burutu behar direla uste dugu, eta ez estatuko beste erkidego autonomo batzuekin, gure agintariek sarritan egin ohi duten bezala, egoera okerragoan dauden beste erkidego autonomo batzuen aldean hobeto gaudela azpimarratzeko helburuarekin. Baina erkidego arteko alderaketak burutu ezker, serioagoak izan beharko lirakeke, eta alderaketa hauek BPGd terminoetan burutu, nazioarte mailan egiten den bezala; era honetara posiblea da materia ezberdinetan burutzen den ekonomi esfortzua neurtzea, inguru bakoitzaren aberastasuna kontuan hartuz. Era egokian egindako alderaketak agerian uzten du, beraz, estatuan baino, ekonomi esfortzu baxuagoa burutzen dela gastu publikoan.

BPGd-arekiko GASTUAREN PORTZENTAJEA, 2011

EREMUA	BPGd %
EAE	41,0
Espainiar E.	43,6
Alemania	45,6
Irlanda	48,7
Portugal	48,9
Erresuma Batu	49,0
17-EB	49,1
27-EB	49,4
Italia	49,9
Grezia	50,1
Herbehereak	50,1
Austria	50,5
Suedia	51,3
Belgica	53,3
Finlandia	54,0
Frantziar E.	55,9
Danimarca	57,9

Iturria: Eurostat

Argi dago gastuek lotura zuzena dutela diru-sarrerekin, eta Batasunarekin gastu publikoan berdintzeko era bakarra, **presio fiskalean ere** berdintzea dela; eta zergetan ere, badago **marjina handia**, zerga presioa BPGd-aren %28,8koa baita EAEn, eta %38,4koa Europako Batasunean.

4. OSASUNA: MURRIZKETAK BATZUENTZAT ETA OPARIAK BESTEENTZAT

Gobernu guztiak (espainiarra, Gasteizkoa eta Nafarroakoa) murrizketak onartzen ari dira bizi baldintza duin batzuk izateko hain garrantzitsua den osasunean.

Hala ere, murrizketen ondorioak ez dira berdinak izaten guztientzat, ezta askoz gutxiagorik ere. Pasa den abuztuaren 3an argitaratutako Dekretua da horren adibide garbia, non osasun arreta jasotzeko aseguru eta onuradun izaera aldatzen den.

Hau da milaka eta milaka paperik gabeko etorkin osasun arreta publikotik kanpo utzi duen

Dekretua, dirua zenbait pertsonen osasunaren aurretik jarriz berriro ere.

Baina batzuentzat horren murrizketa larriak dituen Dekretu honek, beste batzuentzat izugarritzko onurak suposatzen ditu. Hain zuzen elkargo profesionaleko kideei (arkitekto, prokuradore, abokatu, mediku...).

Dekretuak ezartzen duenez, ez du osasun publikoko aseguru izaera izango "beste era bateko derrigorrezko osasun arreta duenak", aseguru pribatuak bezala, adibidez.

Elkargo profesionaleko kideek gizarte segurantzaren langile autonomoak izan daitezke, edo osasun arreta mutualitate batekin hitzartuta izan. Hau da, ez badira langile autonomoak, derrigor mutualitate batekin egin beharko dute hitzarmena.

Arau berri honek ezartzen duenez, "mutualitate bat hitzartuta dutenen kasua ez da derrigorrezko arretatzat hartuko".

Ondorioz, 100.000 euro arteko irabaziaz dituen eta osasun arreta mutualitate batekin hitzartuta duen edozein elkargo profesionaleko edonork, gizarte segurantzara jo lezake aseguru bezala. Eta gainera, inongo kotizaziorik edo ordainketarik egin gabe.

Horrelakoak dira politika neoliberalak. Paperik ez duten etorkinei osasun arreta ukatzen zaien bitartean, aseguru pribatuak dituzten (mutualitateak), 100.000 euro arteko irabaziaz eta inolako ordainketarik egiten ez dituztenei gizarte segurantzako arreta oparitzen zaie.

5. ITXARON ZERRENDEN ETA BATEZBESTEKO ITXARONALDIAREN LUZATZEA EAEko HOSPITALETAN

Irailean ospitaletan izandako itxaron zerrenda eta itxaronaldiei buruzko informazioa ematen duen

txostena argitaratu du Osakidetzak, eta baita 2011ko irailetik hauek izandako bilakaera ere. Ebakuntza, kontsulta, edo probak izan direnaren arabera dago banatuta informazio hau.

EAEko ospitaletan **batez-beste**ko itxaronaldiari dagokionez emaitza interesgarriak erakusten dituzte datu hauek (nahiz eta ezinezkoa den ospitaletan burutzen diren probetan ematen den batez-beste itxaronaldiari buruzko bilakaera aztertu metodologi aldaketa burutu da eta). Zehazki, batez-beste itxaronaldia honokoa da:

- 54,68 egun ebakuntzetarako, 2011ko irailean baino 0,42 egun gehiago.
- 21,3 egun ospitale kontsultetan, orain dela urte beteko 22,42 egunak baino 1,12 egun gutxiago.

Itxaron zerrenden informaziotik ere ondorio interesgarriak atera daitezke:

- 17.094 pertsonatakoa da ebakuntzen kasuan, duela urte bete baino 286 gehiago.
- Ospitaletako kontsultetan 86.539koa da (2011ko irailean baino 696 gutxiago).
- Ospitaleko probei dagokionez, 12.287 pertsona daude itxaron zerrendetan (orain dela urte bete baino 1.394 gehiago).

Ondorioa argia da: **igoera ematen da bai ospitaleetako batez-beste itxaronaldian, eta baita itxaron zerrendetan ere**. Salbuespena ospitaleko kontsultak lirarteke, murriztu egin baitira; baina Osakidetzako itxaron zerrenden euste eta hobekuntza Plana dela eta burutu da jaitziera hau. Plan honek jarduera jaitzi die ospitaleei, beraien lanaren parte bat telefono deingatik ordezkatzuz, eta beste parte bat ambulategietara bideratuz (argitaraturiko txostenak "bertaratu gabeko kontsulten ezarpena, ekipamendu gehiago ambulategietan beraien diagnosi eta tratamendu ahalmena hobetuz pazienteak ospitaletara ez bidaltzeko e.a."-ez hitz egiten du). Baina egokia honokoa litzateke: bertaratu gabeko kontsultekiko erabiltzaileen asebetetzea eta ambulategietan Planak suposatzen duen jardueraren hazkundera ere, aztertzea.

BATEZ-BESTEKO ITXARONALDIA ETA ITXARON ZERRENDAK OSPITALETAN. EAE, 2012-2011 IRAILA

	I. ZERRENDA		B. ITXARONALDIA	
	2011-IRA	2012-IRA	2011-IRA	2012-IRA
EBAKUNTZAK	16808	17094	54,26	54,68
KONTSULTAK	87235	86539	22,42	21,3
PROBAK	10893	12287		

Iturria: Osakidetzak

6. IA BEHAR DEN ETXEBIZITZA KOPURUA HAINA ETXEBIZITZA HUTS

Egungo krisi egoerak pertsonen bizi baldintzen alderdi askori eragiten die: langabezia, biztanleriaren ekonomi zailtasunak eta pobrezia handitzen diren aldi berean, aurrekontuetan murrizketak direla eta politika publikoen estaldurak murrizten dira. Era honetara, norbanako arazoei, gure beharrianak asetzekoan zerbitzu publikoen murrizketak suposatzen duen kaltea gehitu behar zaio.

Egungo egoerak bereziki kaltetzen duen beharrianetariko bat etxebizitza da. Langabeziaren murrizketa, diru sarreren murrizketa, etxebizitzan gastu publikoaren murrizketa, alokairuan eskaintzen diren etxebizitza urri eta garestiak, edo hipoteka bat eskuratu ezina, etxebizitza batera sartzea are zailagoa egiten duten alderdiak dira.

Datu publikoen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) familien %11,7ak etxebizitza baten beharria dute, hau da, 97.800 **etxebizitzaren beharria** dago. Gainera, etxe beharra dutenen %74,5ak beharria handia edo nahikoa dutela diote, eta %27ak egoera honetan 4 urte baino daramatela adierazten dute.

Aldi berean, EAEko etxebizitzaren %8,4 **hutsik** daude, hau da, 84.890 etxebizitza huts daude. Etxeen %2,6 (26.120) sasoiko etxebizitza bezala erabiltzen dira, eta %5,8an (58.771) ez dago inor.

Etxebizitza beharrien informazioa 2011

ekitaldikoa da eta etxebizitza hutsarena 2010ekoa, baina alderaketak, **dauden etxebizitza hutsekin ia-ia behar diren beharizan guztiak aseko zirela** agerian jartzeko balio du. Etxebizitza hutsak merkatura aterako balira, beraz, beharizanaren %86,8a aseko litzateke.

7.PROPOSAMENA: PORTUGALGO MOBILIZAZIOA

Portugalgo lehen ministroak, Passos Coelho, gastua murriztu eta Troikak Portugal urte eta erdi lehenago erreskatatu izanagatik ezarritako murrizketa neurriak betetzeko bere gobernuak hartutako erabakiak iragarri zituen pasa den irailaren 7an. Gobernuak iragarritako neurririk larriena, 2013tik aurrera langile guztien soldatak %7 murriztea izan zen (Gizarte Segurantzari langileek kotizatu beharrekoa %11tik %18ra igoaz), enpresariei kotizatu beharrekoa %23,75etik %18ra jaitsi bitartean. Neurri honek ez du defizita txikiagotzea suposatzen, baizik eta langileei dirua poltsikoetatik kendu eta enpresariei ematea.

Sufritu dituzten murrizketa neurri ugarien ondoren, pobrezia handi eta guztiz deprimitutako ekonomi batekin aurkitzen den Portugalgo gizarteak, nahikoa zela sentitu zuen proposamen hau entzutean. Honela ba, irailaren 15ean, miloi bat pertsona inguru (500.000 Lisboan) kalera atera ziren Portugalgo 40 hiritan, "Infernura Troika. Gure bizitzak nahi ditugu" lemapean, hura manifestazio historiko batean bilakatu; izan ere, guztiz jendetsua izateaz gain, gobernu behartu zuen bere erabakia atzera botatzera.

Ikustear dago zein erabaki hartuko dituen Portugalgo gobernuak Troikaren aginduak betetzeko (hauek ez betetzerik ez da zalantzan jartzen momentuz), baina mobilizazio honek, gobernuaren erabakiekiko gizartearen garaipena suposatu zuen, eta baita mobilizazioarekin, politiketan eragin daitekeenaren adibide ere.